


“Errefuxiatuak: bizitzeko ihes egin behar” erakusketa Garesen izango da abuztuaren 8a bitartean

Nafarroako Gobernuak antolatutako eta patera bat ikus daitekeen erakusketa hainbat herritara iritsiko da uda honetan

Ostirala, 2021ko Uztailaren 30a



 Patera, erakusketaren protagonista nagusia, Garesen dago.

Ostiral honetatik eta datorren abuztuaren 8a bitartean “Errefuxiatuak: bizitzeko ihes egin behar” Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketarako Zuzendaritza Nagusiak sortutako erakusketa ikus daiteke. Bertan, tamaina handiko hainbat argazkirekin batera Gibraltarren erreskatututako patera bat ikus daiteke. Garesko Foruen Pasealekuan jarriko da erakusketa.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza.)